Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Angel Osa Martija

Deba, Gipuzkoa (1934)



Aurkibidea

Biografia



1934an jaio zen Itziarko Elorriaga auzoko Saskarate baserrian. Itziarkoa izan arren baserria Zumaiatik gertu dago. Ama bertakoa eta aita Sarrondokoa zituen. Gau-eskolan Zumaian ibili zen. 11 urterekin baserriko lanei ekin zien eta etxean aritu izan da lanean geroztik. Olagarrotan ibiltzeko afizioa txikitatik izan du. Itziartarra izan arren Zumaiako toponimia jasotzeko proiekturako ere elkarrizketa egin zitzaion.

Zintak

DEB-020

- **Proiektua**: Zumaiako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Azkue Ibarbia, Xabier
- **Data**: 2005-01-01
- **Iraupena**: 40 min
- **Euskarria**: CD

DEB-036

- **Proiektua**: Zumaiako hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Data**: 2009-05-07
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Otegi, Aitziber

DEB-037

- **Proiektua**: Zumaiako hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Data**: 2009-05-07
- **Iraupena**: 30 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Otegi, Aitziber

Pasarteak

1. Elorriaga auzoan jaioa

- **Erref**: DEB-036/001
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Debako Elorriaga auzoko Saskarate baserrian jaio zen; ama bertakoa zuen eta aita Sarrondo baserrikoa. Zumaia eta Debako muga gertuan dago eta bietako baserriak aipatzen ditu. Enpatronamentuko kontuak direla eta medikuz etab. Aldatu beharra izan zuten.

Transkripzioa
-Beno hasteko izena ta abizena ta noiz jaio ziñan esaten ba diazu.
-Nik itten dittut “setenta y cinco” setiembrian hiruan.
-Aja. Eta izen-abizenak?
-Angel Osa Martija.
-Nun jaio ziñen hemen? Saskarate baserrin? Bai, hemen bertan?
-Hemen jaiyo bai, ta hogeta bat urtekin basarriya erosi.
-Zein zenun hemengoa, gurasok hemengok zien?
-Ama hemengua, ta aitta hor auzokua Sarrondo eo Sarrondo baserrikua aitta.
-Sarrondo?
-Sarrondo.

-Aja, hau ze auzo da, nola izena du auzo honek?
-Hau, Elorriya auzua, barrio Elorriaga Iziar da hau, Debaa pertenezitzen gea.
-A, Deba itten da hau...
-Orduan, honei barriyuai esaten diye Elorriaga.
-O sea ke nundik behera hasten da Zumaia? nundik behera itten da?
-Zumaiya itten da, hementxe alboko basarriya Andikatik, Pikote’re harrapatzen du, Endañeta Deba, San Martin, Billabier eta gu, azkeneko puntan gabe. Beste hau Sarrondo esan deten hau Zestua, [...] e, hau Zestua hurrungo basarriya beheko hau, eta beherokua’re bai, hoi’e Zestua.
-Berta-bertan daude, baiño muga [...]?
-Bertan dabe, holaxe muga hola do, bai, bai. Ta gu jubilatutako zeara, bazkaita-ta, Itziarra ta Elorriya-ta juten gea. [...] ta Zumaiya bertan, ta gu bai ba, Debako terrenun gabe, entenitzen dezu? Medikuz, elizaz, Zumaira gabe, egokiyo dakaulako. Ta uain ibili gea kiston jaleuakin. Gurian gaztiuk dabe, enpadronatuta Zumaiyan, meikuak ez zittulako onartzen. Andria leheno leheno jende gehiyegi zola Zumairako, eta andria ezkondu, biyen bitartian famili guztiya hamen genden neuk ezagutu ezkeo, pentsa zazu e, eta bat gehiyo ez onartzetik, ezkonduta, bat gehiyo ez onartzetik, ba, Debaa jun berko gendula, Itziarra jun berko gendula meikuta aillau ziun. Ta ordun in zian, hori ez eitetikan, enpatronatu anaiyen etxian, eo ze, beste anaiyen etxian, eo semien etxia baiña, Zumaiyan enpatronau zian. Ta uan botuak Zumaira etortze zazkue, ta Debako alkatiak pena hori, ta zuzentzeko esaten ziken, hoi zuzentzeko, ta beak ezin leikela ordia hori ein. Ta hola. Ta nei juxtu-juxtu. Endañetak eta San Martin ta hoiyek aldau in zittuen Iziarreko meikuena, eta gu andre-gizonak Zumaiyen gare oindik meikuakin.
-Aja!
-Ze zu, ze balantze, ze balantzetan daon gauza, ba holaxe gare gu.

2. Elorriaga auzoko baserriak

- **Erref**: DEB-036/003
- **Iraupena**: 0:00:24. **Hasi**: 00:05:21. **Bukatu**: 00:05:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Elorriaga auzoko baserriak izendatzen ditu.

Transkripzioa
-Semiak lana itten du kanpuan ta gurasuak etxian.
-Ta guztia zenbat baserri eongo dia gutxi gorabehera hemen?
-Hemen baserriyak e, Mexpendi...
-Elorriaga auzo hontan?
-Elorria auzo hontan ba, hauexek, hiru Endañeta, Billabier ta San Martin eta gu.
-Sei?
-Sei. Sei Elorriaga auzon. Bestek bakizu Zumaira itten dia ta, Zestua ta esan dizut Zaramo ta hoiyek.

3. Zumaiako gau-eskolan ibilia

- **Erref**: DEB-036/005
- **Iraupena**: 0:04:07. **Hasi**: 00:06:25. **Bukatu**: 00:10:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Gau-eskolan ibili zen Zumaian. Ikasketak egiten ari zen irakasle batek ematen zien eskola kale-etxe batean ordu eta erdiz. Etxean lan egin behar izaten zuen eta ez zen beti joaten eskolara. Eskola euskaraz ematen zuen eta hiru hilabetez ibili zen. Gerora, soldadutzan kabo batek irakatsi zion gaztelaniaz.

4. Probarako idiak etxean

- **Erref**: DEB-036/007
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:10:37. **Bukatu**: 00:13:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
11 urterekin hasi zen baserriko lanetan. Behiak, idiak, etab. edukitzen zituzten etxean. Aita ganadu tratularia zen. Angelen etxeko idiak probara ateratakoak izan ziren. Bera ere atera izan da idi-probetan itzain gisa. Jokatutako proba batzuen aipamena egiten du.

Transkripzioa
-Umetako kontukin pixka bat seitzeko, esan dezu hamaika urtekin hasi ziñela?
-Bai, ni belarra ebakitzen hasi nitzan.
-Etxeko lanetan?
-Bai, arreba zaharrena etortzen zitzaiten astuakin, belarra eaman, etxea ekartzea, eta nik ebaki, eta etxeko ganabatekuak itten nittun. Hamaika urtekin hasi eta gaur arte, ondo esanda.
-Ganaduik bazenuen etxen?
-Bai, eukitzen giñuzen ba, sei behi, zazpi, ta igual bi iri pare, lau iri igual eukitzen giñuzen, seitaño'de bai, gure aitta zana pixkat tratuan eta ibiltzen zan, feriyetan ta, ordun izaten zian, uain ya bukau dia hoiyek, eta beti izaten zun saltsa: idi batzuek eaman beste batzuek ekarri, ganbiyua ta trukia ta. Gustau itte zitzakon saltsa hori ta, gu han ibiltzen giñan iya dominau ezinda, iri gaztia bakizu, beti aprendiza ze izaten dan, ta mararikatzen ibiltzen giñan, jarduten giñan [...] ta baña beak nahi zuna itten zun.
-Probako idik euki zenuen?
-Bai.
-Bai?
-Bai, ibiltzen giñan hartan'e, gerostikan ibili nitzan ni, proba premiyutan ta ibili nitzan, Deban, Itziarren, Aiyan'e bai, Elgoibarren'e bai, eta neuk ez det hola, bai noixian behin hola tarteka gustatzen zat hola jatordu bat eittia ta

hola launarte pixka bat eittia baiño, en generalmente ba zuzen xamarra izan naiz, ta orduan be [zeruan] ba nik ez dakit, juerga handirik ez datzen ta iriyai baba ematen niyon eunian hirutan, ta iriyak ondo eukitzen nitun, sasoiko eoten zian, ta pentsatzen zuen jendiak, “hoi proban dabizki gutxi horrek iriyak yos! hola iriya prepatuta eukitzeko” ta nik ba gustau iten zaten ganaua ondo eukitzia. Ta gero etorri in zitzaiten lata ematea, zea holako tokiyan premiyuak eta, sabela ta jungo al nitzan ta nik esaten niyen “nik asko itten badet, gutxi itten badet nei ekarri honea beste diru” “joder, hoi asko dek” ta “ez nauk ba jungo” esaten niyen, tratua itten nuan, eta orduan jun itten nitzan, ta bestela ez.
-Aja.
-Hola ibili nitzan. Gero…
-Zeu ibiltzen ziñen itzai?
-Bai, e, bospa, sei bat alditan bai, neu, atzetikan’e bai ta aurretikan’e bai ta itzai ibili nitzan Zumaiyan kontra […]n jokau nittun e, bi, bikoa Urtain zana, badakizu, haren aittakin ta’re jokau nun nik, Potxolo, Potxolo zana ta Urtain zana, biyak, eta ni ta zea, Txortena Eukiyako okerra esaten ziyoen, karnizerikua, gure iriyakin gu biyok, ni atzetik eta hua aurretik, ta plaza erdi batetikan premiyua aurrenekua kendu ziun, dios, itzaiyetan aldia zeon, ta gizon haundiyak zian haiyek eta, ostras ta plaza erdi batetik, iriz, iriz gehiyo giñen gu gaiña, bai, Zumaiya, zea milla ta bostehun kiloko harriyakin, iri bakarrakin.

5. Idien mantenua

- **Erref**: DEB-036/008
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:13:32. **Bukatu**: 00:15:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Probara atera aurretik idiei aprobak egiten zitzaizkien karga eta bestelakoak neurtzeko. Baba ematen zien jateko, mantenu garestia zen. Arruara joaten ziren idiak ferratzera.

Transkripzioa
-Holako tratuak hartu dittut nik…
-E gaur aiñeko zeaik izaten zan, e, ba ez dakit, idik ateatzeko garaien e, aprobak in, neurtu, hola ta gauzak eta…
-Bai.
-Holako gauzak izaten zian ordun’e?
-Bai, bai, bai.
-Gaur bezain zorrotz eamaten zan?
-Ez dizut esango, baiña bai, ordun’e o aizu, gaur e drogatuta juten diala ta analistak eta gauz hoiyek eta baiba, baiña orduan drogaik eta ez zan, natualian ganaua gobernau ta, pixuan sartu ta kiloko kilo t’erdi sobrekarga hartu ta gauza hoyek ordun’e bazian, baiño drogen analistak eta hoyek ez, ez zian eitten. Geroztikan zian beste tranputxo hoiyek geroztikan hasi zian. Bai, jendia gaixtotu in zan ta gehiyo jakin ta, guk esaten giñun guk esaten giñun “ze dios! leheno’de iriya gobernatzen giñun ba guk” eta “hoinbeste plazeta ez giñun irixten ta uain nola leike” ta gero azaldu zien, okerrak gero azaldu zien.

-Jateko esan dezu baba ematen ziozun, baba, baba...
-Zain haundiyekin, zain haundiyekin baba ta bestela berdia ta parian parekua, lehor garaiye, o lastua o, ematen giñun eta baba behintzat ba ondo, zain haundiyakin, eta gaiñuntzian tripa bete, bakizu. O nahikua ez, nahikua ez zitzakon ematen, zuk proba bat o itten balin baziñun, ba irikin in behar izaten zan ibili, dezente. Ura gutxi, eta jatekua’re tripa sartu in ber zenun, kiluak kendu in behar ziñun, bestela sobrekarga haundiya hartu behar izaten zan, eta hor jokatzen giñan, eunia bitan ibiliz saltaka idiyak eta, baiño lan haundiya izeten zan, enredo haundiya zun, ta nik hura, deskartau in nun, hura laga in nun. Iri bakarrak...
-Diru, dirutza izango zan mantentzea haiyek’e ez?
-Bai, onbre, hoixe ba, beti parian parian garestiya izan da, bai, iriya mantentzia, lujua zan ta, lujo bat.
-Eta perratu ta? Nun itten zittuzun?
-Orduan perratzaillia, uain gaur neuk jarduten det etxian uaindik.
-Hara!
-Behiak eta perratzen neuk jarduten det. Baiño orduan juten giñan Arrua juten giñan irik perratzea, perra gantxuakin ta jarrita ta itten giñuzen ta, gero uztargilliak berriz etxea etortzen zien, hots ein ta uztarriya ittea, eta gero uztarriya in ta iriya probatu.

6. Uztargilea etxera

- **Erref**: DEB-036/009
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:15:54. **Bukatu**: 00:17:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Uztargilea etxera etortzen zen uztarria egitera. Uztarriak nola egiten ziren azaltzen du. Pagoa izaten zen uztarriak egiteko egur onena eta egun bat behar izaten zuten lana bukatzeko.

Transkripzioa
-Zeiñek ze joera nola ateatzen zuan ta.
-Asike uzta-uztarrie etxen bertan itten zuen?
-Bai, egurra ekarri ta, bertan ein ber izaten zan, iriyai in ber izaten zitzakon neurriya hartu, batzuek buru makurrak izaten zian, ta bestiak buruz altua, orduan hayek igualdatzeko ba uztarriyai hartu ber izaten zakon bere maniobra eta gero, batzuek adar zabalak izaten zian, ta uztarriyan juntu jartzen zienian alkar jotzen zen, ta alkar jotzen zegon bat, hamen [oazian] berotik jarri ber izaten zun ta bestia gorotik, entenitzen dezu? Eta hoi neurri hoik hartukuak badia irik, kopeta neurtu, eta beren joera hartu ta, orduan ba neurriyak hartu ber izaten zien bertan. Erropa nola izaten da neurrira josten dana, ba igual, igual.
-Eta ze egurrekin itten zien uztarrik?
-Pagua en general, mayoriya pagua. Gero hasi zian zeakin lertxunakin itten, baiño, raka raka, puskau eitten zien.
-Pagoa gorragoa?
-Pagua gorragua, askoz’e gaiña, bai, bai. Frogatan ta ibiltzeko derrigor pagua ber du, uain basarri lanian ta ibili leike lertxunakin, baiño ariñagua da hura, baiño probako ta ta ez du, ez du aguanteik.
-Eta denbora asko behar izaten zun uztarri bat itteko?

-Eun bat ber dezu, goizian etorriko zan trenian etorrita, ze esango dizut, beatziyak, t’erdik, hamarrak hasteako, eta arratsaldian ba hortxe, bostak, seirak hor bukatzen zun.

7. Idiei "brilloa" ateratzeko, ur epela eta lustrea

- **Erref**: DEB-036/010
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:17:25. **Bukatu**: 00:20:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Idiei "brilloa" nola ateratzen zieten azaltzen du; ur epela, lustrea, etab. erabiltzen ziren. Probalekura kamioietan eramaten zituzten idiak normalean, baina gertuan zenean oinez joaten ziren. Debara idiak probatzera joan zirenean gertatutako pasadizoa.

Transkripzioa
-Bere lana, bai.
-Eta hor sekretun bat izaten zan, e, idiri brillua ateatzeko o?
-Brillua ateatzeko?
-Zekin ateatzen ziozuen brillua, zeatikan plaza eaman aurretik pixka bat...
-Brillua batzuek ur epelakin, ondo eskobillatu, garbittu lehendabizi, ahal dan ondoena, eta gero ba ur epelakin, ta beste batzuek berriz lustria nahastuta lustriakin zan ta nik neuk ez nun sekula oittu.
-Lustrea ematen zien?
-Bai, nik neuk ez nun sekula oittura hoi e, ez nuen, bestela iriyak bai garbittu ta zean, baiño normal, normal, baiña batzuek bazuen ohittura hori, pixka baño hola, pixka bat destakau nahi zenak ta izaten zien ba, ta haiyek orduan brillua ateratzeko ba hola ibiltzen zien, batzuk ur beruakin, ur epelakin, ta beste batzuek lustriakin.
-Eta proba lekua jun behar zenuen garaien nun eamanten zittuzuen idik?
-Idiya antomobillian, ordun’e antomobillak izaten zian, bai.
-Ze izaten zan, remolke modukon bat o?
-Ez, ez, ez bestela ganbion koskorra bai ganbiona ganbionak izaten zien ordun’e bai, bai, bai, ganbionan ematen giñuzen.
-Eta e zuena izaten zan kamiona o baten batek ekartzen zun?
-Zumaira juteko oiñez, Zumaira juteko, baiña behin Iziarra ta Deba ta hoiyeta, ez, hoiyeta antomobillakin, bakizu iriya’r nekau itten da eta gu Deba junda genden bitan’e iriya probatzea gabian oiñez, ya yos, pauso asko itten da, aste guztiyan jardun.
-Lanen?
-Lanen irikiyak leher inda zauden garaiyan, ta “uaintxe probau behar dizkiu hauek” pentsau eta, gero jun giñan uztarritik eta hartuta bi koñau, ni ta andrian anaiyia, motorrian jun giñan, eta beste nere anaiyia Zumaiyan bizi dana eta andrin anaiyia bestia, oain Uztarrun bizi da hura, haiyek biyek iriyakin, andar, gu ba haiyek erten ta ordu bete ordu t’erdi horrela, erten gu hamendikan uztarrik ta hartuta motorrian, eta jun giñan Deba ta, Deban ai giñan, idiyak uztartzeko preparatzen ta, guardia zibil paria da etorri zitzakun, ta aber ze in ber genun ta ba iriyak probatzeko airian giñala ta, hua ez zala garaiya ta ez zigula lagako. Ordun izango zian ba, or, ordu bata, t’erdik, ordubiyak, gabian, ta aber zeatikan ta plaza buelta guztiyan ba bezindadia etxiak zaben, eta esnatu ingo giñuzela ta ez ziula lagako.

Koño Zumaiyatik jun giñala hola ta hola iriya probatzea propiyo ta haraiño junda aber ba ta beno, konsejo bat emango ziula harriyak bakarrik atea zeilla hotsa, geu ixilik.
-Ixilik?
-Hoi itten bagendun, bale esan ziun, ta horreatikan’e beak beida zeudela ingendun gure prueba hori eta etorri giñan.
-Nun entrenatzen zittuzuen idik, eo nola, nun eta nola?
-Idiyak hamen etxe onduan, e batian…

8. Idien entrenamendua

- **Erref**: DEB-036/011
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:20:34. **Bukatu**: 00:21:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Etxe ondoan harria edo gurpilen bat lotuta entrenatzen zituzten idiak. Lurrean entrenatzea izaten da onena, ganadua gehiago behartzen delako.

Transkripzioa
-Harriyakin ta beste batzuetan kubierta zahar bat jarrita ta, egur haundi bat igual arrastaka ta tipo horretan ba raka raka raka raka tiraka iñez ba ibili, hartu zea bat, e, plazako traiekto bat, eta gira ta buelta, gira ta buelta, ba denboa bat hartu “honenbeste hainbeste plaza in ditxiu” esateko ba iriyai petxua jartzeko ta hola.
-Baiña aldea izango da hor e, kamiñon hormigoiyan entrenatu eo?
-Lurrian entrenatu.
-Proba lekuko harri hortan entrenatu?
-Baitta ta lurrian entrenau ta zean entrenau’re bai, plazan entrenau’re oso diferentiak dia. Baiña…
-Zer da hobea idik entrenatzeko?
-Iriya entrenatzeko lurra bea ona da.
-Lurra?
-Bai, oso ona da.
-Zeatik, sartu itten dalako bertan?
-Ganaua gehiyo penatzen da, gehiyo nekatzen da eta petxua gehiyo itten zaiyo, bai, ibili gutxiyokin ganaua gehiyo bihartzen da, hondarrian bezela, hondarrakin bakizu, ihes itten dizu ba, alde in itten dizu, ta hondarra e, uain zaldiyekin ta, ta nola hasi dia, hondarrea juten.
-Bai, hondartzan ta…
-Bai ba, hoixe.

9. Soroko lanak idiekin

- **Erref**: DEB-036/013
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:22:28. **Bukatu**: 00:23:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Soroko lanak idiekin egiten zituzten. Etxe inguruan aldapa ugari zuten eta soro asko eta lan gogorra izaten zuten.

Transkripzioa
-Arrua edo Zumaiyako proban kontua.
-Ordun soroko lanak eta e irikin ta ingo zittuzuen?
-Bai, irikin itten zien.
-Ittulan ta?
-Puf, ittulan, zuk ittulako berri badakizu e, zeoze beno izenez badakizu, bestela...
-Bai, hoi da.
-Ittulen...
-Ez ibili naizelako baiño.
-Bai, uain danak zelai dabe, baiño ordun danak soro ibiltzen zian.
-Bai, ta hemen aldapa pixka bat'e bai ez ta? [...] hontan.
-Pixka bat baiño gehiyo, uain itxi hau obra daon toki hau're, itxia alderdi hura zan, hau dana berri partia da, ukuillu partia, hau dana soro ibiltzen zan, hemen itxin azpikaldeko sagasti hau dana're soro ibiltzen zan, danak habek soro ibiltzen zian leheno. Eta ganau gutxi eta soro asko ta zimorra palta izaten zan ta uain berriz labranzaik ez, ta ganau asko, ta zimorrik enpliau ezin, pentsa zazu ze aldaketak daben. Aldaketak dia.
-[...] e, zuen garaien hua ikusita.

10. 21 urterekin etxea erosi zuen

- **Erref**: DEB-036/014
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:23:24. **Bukatu**: 00:25:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Errenteroak ziren etxean. 21 urterekin, soldadutzan zegoela, euren etxea salmentan jarri zutela jakin zuten eta etxea berak erosi zuen. Etxea erosi zuen prezioa berean erosi zuen traktorea handik urte batzuetara.

Transkripzioa
-Nik hau, nik hau hogeta bat urtekin itxe hau hartu nunian fuf, nik pentsau nuen, bai ba errenteruak giñan ta, berrogei egun falta nittun soldauska eitteko ta arrebak esan zian "Angel notizi txarra zakat, kartaz bildu zuan eta ez zekit ze erantzun emango dieken, itxia baserriya saltzea atea dek" guk ez genekiun artian nausiyak zein zian, ta Maleikuak nausiyak, eta "presa diye etxia saltze zeatzeko" ta geuk hartu o ze in ber dan ta "joe esaiyozu eoteko behintzat, berrogei egun falta dittutela ta lizentziatzeko ta orduan pentsauko deu zer ein" eta halaxe, anai-arrebak, bai bi arreba ta anaiyia gaztiauak, haiek zaben aitta ta amakin itxian, eta ni soldau, ta bestia ezkonduta zona berriz Zarauntza jun zan, eta hola zon panorama ta etorri nitzanian ba huaxe erabakittu nun hamen noa jun ber diu guk uain,

kalea juteko’re ez [...] ze in ber diu guk hemen ta hartzia erabakittu nun neure kontura. Kaja ahorrosetik dirua atera, eta ehuneko hamaika pagau nun nik urte haiyetan, oain dala berrogeta hamalau urte etorri behar, hamahiru urte pasa dia.
-Atrebentzie ez balin bada, zenbat diru zan garai hartan?
-E...
-Gutxi gorabeherako bat?
-Bai, ez ez, gutxi gorabehera, total esango dizut, "doscientas cincuenta mil".
-Ja ja.
-Berrehun ta berrota hamar milla pezta, eta orduan hori patzia, diruik ez zan ba ordun, redios, baloria ta, eta aurreneko tratore txikiya uaindik hortxe dakat [...] haundiya hogeta hamarrekua, diru bea, hori...
-Balio zun?
-Hori ekarri nunian, bai diru bea baliyo zun. Basarriyak hainbeste balore tratore zahar txerri batek.
-Joe!
-Pentsa zazu, ze aldaketak, bai, baiño handik urte batzuta.

11. Idiekin istripua izan zuenekoa

- **Erref**: DEB-036/015
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:25:25. **Bukatu**: 00:28:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Gurdia belarrez betetzen ari zela eduki zuen istripuaren ingurukoak kontatzen ditu. Emaztea egunero joaten zen Zumaiako plazara etxeko gaiak saltzera, astoa hartuta.

Transkripzioa
-Handik urte batzueta e!
-Ya, bai, bai, bai.
-Handik urte batzueta. Gero irik kendu ta nik akzidente bat euki nun hor iriyakin gurdi belarra kargatzen jardun, hortxe aldapa aldapan, eta haiyek’e nauzkan probako prepatuta Aiya juteko gaiña, e, hiru milla kiloko harriyakin jokatzeko nauzkan iri haik ta, iriya beltza ta gorriya ta tope zaben ta aldapan zulua in ber izaten da gaiñekaldeko kurpilla berdik jarriko balin bada ta sartu ta esan niyen, koñaua ta andria ta hirurok ta belarra juntatuta gendukan ta esan niyen “eongo dittuk guk hau kargatu bitartian geldi”. Bat beti ibiltzen zana zan ta, baiña hogei bat minutuan geldi eoten zan, ta gero hasten zan eon ezinda, ta esan niyen “eongo dittuk denbora horretan ta ez ditxiu pertiketik aterako, daren bezela sartu zuluan ta kargauko diau”. Ni gaiñian kargau deu gurdi belarra ta irik geldi ta “ekarri gaiñekua” nik esan “ekarri gaiñekua”kin ez dakit nik “aida” entenittu zuen, xuuu! Ni p! ta ordun hamen behian piñudiya naukan, hortxe ateatzeko, ta piñudia ateatzeko pista einda, ta nik neure burua ez nun ezautu, nun nitzan, nik gurdi belarrai peau niyon, baiño nola zeon gaiñekua ipini gabe, libre.

-Libre.
-Xiu! Ni boteau niñun ta hementxe gerri gerriyan hartu nun, maldiziyua, latza hartua izango nun, konozimentuik pe nitzan. Itxian ezautu nun nik nere burua, ohian, gurdiyan ekarriko zien, koñauk eta andirak, nik ez dakit, ni ez nitzan kontuatu nola etorri nitzan, eta ohian, nere konozimentua etorri zitzaten.
-Earra sustua.
-Gero, Elorria gaiñian nauzkan zazpi gurdi belar ondo kargatzeko, ta eman ez dakit zer zan orduan milimento eo zeoze eman gerriyan frotau pixka bat eta jun in ber harea deskantsuen partez ta gero hurrungo eunin gaizkiyo ta jun nitzan meikuenea ta “ze in dezu, ze oker in dezu” esan zian mekiuk ta ba “hola ta hola, hau ta hau in det” “ba hausik ez daukazu baiño golpea txarra daukazu eta hori derrigor zainddu in behar dezu” esan zian, hoi zainddu zazu ba, ume txikiyak eskolan nazkan ta…
-Ta lana besteik ez.
-Zaharrak, ni oain bezela, ezin gauza laneako, haiyek’e kargua hartu ber ta andre gizonak, eta andria juten zan merkadua, goizero astua kargau, tope ta merkadura juten zan esniakin ta patatik ta, batzakukin, eta bi astoekin’e bai. Guk garai hartan diru ondo in genun.
-Asike azoka juten zan jeneroa saltzea?
-Azoka ez, Zumaiyan merkadua, plaza
-A, merkadua’
-Plaza juten zan, eunero.
-Eta ze saltzen zun? Esnea?
-Esnia, patata itten gendun, guk bagiñuzen hogei tonela patata indako urtiak, ta milla kilo baba.

12. Gari-jotzea; errota etxean

- **Erref**: DEB-036/016
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:28:16. **Bukatu**: 00:31:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Soroan lan ugari egiten zuten; patata ereiten zuten, besteak beste. Garia ere egiten zuten. Garia jotzeko makina bazuten hiru baserriren artean sozio erosita. Gari-jotzeko egunean auzotarrak elkartu eta bost orduz aritzen ziren. Errota etxean zuten eta kontrabando garaian auzorako irina egiten zuten bertan. Baina behin isuna jarri eta errota itxiarazi egin zieten.

13. Ogia eta otorduetako jakiak

- **Erref**: DEB-036/017
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:31:23. **Bukatu**: 00:33:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Ogia ekonomikako labean egiten zuten. Hiru sare ezberdin zituzten irinarentzako. Eguneroko otorduetan haragi eta txerriki ugari jaten zuten. Igandeetan garbantzuak jaten ziren. Arraina urri izaten zen.

Transkripzioa
-Ogik itten zenuen etxen?
-Bai, ogiya [...], hoixe ba. E, hiru sare klase zittun, eta larriya, fiñaua eta fin fiña azpikua batzen zan, labaiñ labaiña iriña, haekin iten gendun ogiya. Eta pixka bat ogi e, txuri txuri txuriya nahi ez balin bazan, hurrungo bahi aldekua eta azkenekua biyak nahastu, eta pixka bat ogi illunagua ateratzen zan, eta gehiyo arrotzen zan, zuri zuri hura baiño, txuri txuriya pixka bat makal antzekua gelditzen zan.
-Labe sun itten zenuen?
-Labe sua... Ez, ez, ekonomikako labian eitten gendun ogiya itten gendun.
-Ja ja, zenbat denborako ogia izaten zan, aste betako o?
-Bai, inguru hori, bai, eta gutxiyoko’re.
-Zeiñek ite zun amak?
-E?
-Amak o zeiñek itten zun?
-Bai, amak itten zun ogiya. Ta arrebak’e bai itten zuen. Talua’re bai. Mugakiya’re bai, hoi danak ezautu giñuzen.
-Euneroko bizimodun ze jaten zenuen?
-Euneroko bizimouan ba orduan haragiya uain baiño gehiyo ibiltzen zan, eta txerrikiya’re bai, txerriya etxian hiltzen gendun.
-Etxen hiltzen zenuen?
-Bai. Eta ze esango dizut nik, batzakua, bai, guztiya itten gendun, klase guztitik itten gendun, eta arrautza patata prejittuan, gixaua, ba uan bezela, garbatzuak eta uan bezela ez zan, jaiyian izaten zan ordun, uain erosten dan garaiyan jaten deu, baiño ordun garbantzua izaten zan jaiyian bakarrik, salda, garbantzu salda, eo garbantzua, joe, hoi jatordu zea bezela itten zan ordun.
-Ya, espeziala?
-Bai ba.
-Eta hemen kosta alden eonda arraie? Izaten zan?
-Arraiye jaten zan, baiña uain bezain erraz ez, uain baiño arrai geiyo eongo zan baiña arraiya, o garestiya zalako o o tiatzen ez gendun, ohitturik ez gendulako o ez dakit zeatik.
-Ya beti’re baserritarrak...

14. Egunez olagarrotan, gauez gau-arrantzara

- **Erref**: DEB-036/018
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:33:28. **Bukatu**: 00:35:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Olagarroa
- Itsasoa » Arrantza motak » Gabarrantza

Laburpena:
Egunez olagarrotara eta gauez gau-arrantzara joaten zen Zumaiako hondartzako haitzetara. Gau iluna behar izaten du arrainak ez ihes egiteko eta

kandila hartuta joaten zen. Olagarroa patatekin eta zopatan jaten zuten. Olagarroak atarian edukitzen zituzten lehortzen makilatik zintzilik.</p>

Transkripzioa
-Igual arraiyeko joera gutxigo eukiko dezue.
-Nik arraiya, nik arraiya ekartzen nuan neuk, itsasotik, gab-arrantzura junda, gabian juten nitzan, olagarrota’re bai. Eunez olagarrota juten nitzan, ta gabian gab-arrantzura kandillakin. Horreako ohittura’re banun. Igeriyan’e hortxe ikasi nun.
-Gauen juten ziñan?
-Gabian. Kandilla hartu ta [arranaziya], eta andar!
-Eta nun, nun itten zenun e?
-Hementxe, hementxe hor Pikote o esaten diyou baserri bat dao, ta hortxe goitik behera bajatzen giñan, ta hortikan sakoneta, parte horta. Ta uain hau itxi in de, hau debekatu in de, olagarrotan hor itia, Zumaiyatik hasi ta Deba bittartian, “prohibido”.
-Hortikan ze jeisten ziñan e?
-Bai, arroketan, hor behera, goittik behera, bai, aitzian goitikan behera bajatzen giñan, arroketa, eta hortxe.
-Eta gauez nola ikuste zenuen?
-Kandillakin.
-A!
-Bai, eta gabian ber du gaiña gau illuna, illatargiyan ez du bero gehiyo. Illatargiyan juten balin bazea, arraiyak beak ikusi itten zaittu, eta ordun xit, eskapatzen du, ta illun illun balin badao ta zuk argiya ta kandilla botatzen badiyozu, argiya, zeuri beira geatzen da geldi geldi geldi zeorren argiya, argiyai beira geatzen da geldi geldi ta ordun tak arraiya arrapatzen dezu.
-A, eta olagarro hoiyek nola jaten zittuzuen, nola preparatzen zian?
-Olagarrua, e, uain bezela ez zan jaten zea, pintxotan, pintxotan ez zan jaten.
-Baiña etxean jaten zenduena nola preparatzen zenuen?
-Bai, patatakin ta zopakin, oaiñ’e bai, uaiñ’e badazkau hor olagarro pillo bat dakat nik uain’e hor.
-Eta..
-Uan semik harrapatzen dixkit e, neuk ez, nik sekatu.
-Sekatu in behar izaten die?
-Bai, olagarruak sekau in ber izaten du. Preskotan’e bai, hoi, haiyek dazkau kamaran, hoiyek pintxotan jateko o tomatiakin jateko o noixian behin kapritxua danian, haik dazkau olagarrua hola, holako, txiki xamarrak, haiyek preskotan kamaran sartzen ditteu, eta haundi xamarrak hola olagarro haundiye, ba hoiyek sekatu. Hementxe sekatzen dittut, hemen, tak, makilletan jarri ta, primerako tokiya. Hoi kalian ez do itteik, usai haundiya.

15. Txerri-odolkiak auzora

- **Erref**: DEB-036/019
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:35:32. **Bukatu**: 00:36:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Urtean bi-hiru txerri hiltzen zituen aitak eta txerriki asko jaten zen etxean. Txorizo eta odolkiak etxean egiten zituzten eta "txerri-odolkiak" auzora banatzen zituzten. Mantentzeko gatz-kutxan gordetzen zuten okela.

Transkripzioa
-Baiña hemen bai.
-Esan dezu txerrie hitzen zenuela, ta igual txerrikie jateko joera haundigoa izango zenuen ezta?
-Bai, ordun txerrikiya, txeeriyak'e, familiyan arabera bi o hiru txerri hil urtian.
-Urten?
-Urtian, urtian hiltzen zian ta...
-Ta zeiñek hiltzen zittun, etxekon bate?
-Aittek, aittek hiltzen zittun. Ni hasi nitzan, baiño ni hasi nitzan garairako ya txerriya haztiai laga giñun, ya beste mantenimensu bat ta, txarrikiya're hasi zian ba meikuk, eta ez zala hainbesteaiñoko ona ta zea ta hil ez ta, ta orduan ba laga in giñun txerriya haztiai, baiño neu re hasi nitzan txerriya hiltzen.
-Txoixok eta odolkik eta itten zittuzun?
-Bai, etxian itten giñuzen.
-Bazan e ohittura auzoa banatzeko gero?
-Baitta.
-Bai?
-Txerri odolkiyak, ordaiñetan, esaera zan, ta hala itten giñuzen. Urdai trontzo bat eo giyarrakiñ eo zeatu ta gero bi hiru odolki ta hola izaten zian, umiak balin bazian ba umiak erregaluk, txerri erregaluk partitzen ta, hoiek danak.
-Eta txerriki hoi nun mantentzen zenuen, nun konserbatzen zenuen?
-Txerrikiya?
-Urdaie ta bai, nun?
-Uain bezela izan balitz bai earki, bai alperrik galdu're eitten zian, e, bero haundiya balin bazan eo kixtuan, gaxi-kutxa esaten zitzaion, kutxa bat bezela, eta orduan gazittu itten zan txerrikiya, e, esango dizut nik, freskotan txorizuk eta gauza hoiyek jaten zien baiña beste hoiyek gazittu in ber [izaten zien].

16. Cadiztik Kanarietara ikazkin

- **Erref**: DEB-036/022
- **Iraupena**: 0:03:53. **Hasi**: 00:40:07. **Bukatu**: 00:44:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Olagarrotan zebilela ikasi zuen igerian. Soldadutzako pasadizo bat kontatzen du. Cadiztik Kanariar irletara barkuan "maquina y caldera"n ikazkin lanetan joan zenekoa. Itsasontzi planeadorea zen eta han egiten zituzten lanak aipatzen ditu.

Transkripzioa
-Aitta semiak biyok eaten deu sagardua.

-Ordun gehien bat baserritik bizi ziñeten zuek?
-Ni bai.
-Patuta, bai
-Ni, ni ez naiz jornalea atera.
-Eta esan dezu olagarrota ta juten ziñela baiño itsason ta ibiltzen ziñen?
-Ibiliko ez nitzan ba!
-Bai?
-Puf, igeri itten esan dizut ba hantxe ikasi nula olagarrotan nabilela, potzo haundiyan sartuta derrigorrin habil, hantxe, hantxe ikasi nin iyeri, ta gero soldau jun nitzanian, barkuan hegalian holaxe jarrita neola bokaillua jaten batek pentsatzen zun nik iyeriyan ez nula jakingo ta bultza in zian braupa “la puñeta” atzeaka ureta bokaillo ta guzti, esku batin platanua ta bestian bokaillua, ogi boillua ta “al agua” bota niñun ta riki raka riki raka ta lehendikan pixkat jakin nik eta “arriba” betikan gora ta ez niyon kasoik in, pentsau nuan “etorriko dek biyarko euna, jangoikua, nei in dik hau” baiño pentsau...
-Buelta ekarriko du honek!
-Bai, ta, pentsau nun e, [brastiatzia] pentsau nun e, ta Granadakoa zan ta, emango nizkon bi zarta baiña yos hua itteik ez zaon ba soldauskan badakizu ta hala hurrungo goizian nik makinetan lana itten nuan “maquina y caldera”, hango destinua eman zien, eta sekula makinik ta gauza ikusi ez ta hua’re pasau behar izan nuan, fogonero lana in ber izaten nun nik. Ikatzakin. San Fernando Cadiztik Canariesa jun nitzan ni kalderan ikatza botiez kalderai. Mariatu ta jata bota tripan zienak eta ez zienak danak, ta sekula barkun ibili gabe, ta “txo benga sube presión” esaten zian komandantiak zeatikan puentetikan ta “como voy a subir el presión” ura gehiyo botatzen niyon ikatza baiño ta. Ikatz tokira dana ura sartu goittikan itsaso txarrakin brrrr goittikan behera ta ikatza beste ura botzen nuan ta “sube presión” “me cago en dios” ta dana mariauta neu, nahiyoko nun zutik eon baiño, ta gero eitten giñuzen ordu t’erdi guardiyan eta bi ordu etzanda, etzanda ez, barkukin batian blitti blau ta antxe balantzaka ta, “txo benga a comer” ta ni “a comer”... “de dios” ni jaten ona naiz baiña, hala jangoikuak jateko kontuak, mariauta donian, ezta ure eaten nuan ta puf basoka bat ean ta bi botatzen nittun atzea. Pentsa zazu, San Fernando, Cadiztikan Canariesa, barku makarroso harek pasa giñuzun, planeadoria zan, pasa giñuzen e, hiru gau, eta bi egun. Aizu, ta denbo guztiyan guardiyan. “Trabajando”. Gero hara jun giñan eta...
-A, berez soldauska nun hasi zenun zuk?
-Zean, San Fernando, Cadizen. Bai, hor in nun bandera juratzia, eta hiru hilabete haiyek zeatu zianen gero destinau nitzan barko batea, ta gero barko hura jun zan Canariesa lanea. Planeadoria zan. Itsasoko sondak eta mendikuak eta hartzen ibiltzen giñan.
-Ja ja.
-Eta ni hantxe barkuan batian kalderako linpiezak eta gero barkoa kanpoa ertetzen giñunian ba sondeatzea ta juten giñanian, orduan “a trabajar a la caldera” juten nitzan, ta bestela berriz...
-Ze izaten zan sondeatzea?
-E?
-Sondeatzea ze izaten zan?
-Sondeatzia? Ba sondeatzia izaten da uretan, goittikan behera ze profundidade ze altura don, e, mendiya bezelaxe, altu bajuk eukitzen dittu itsasuak, haitz altuak, hurrungo erreka bezela sakonak, ta horrei esaten yoe profundidadia, hoi kalaziyua batzuek, segun ze izena eman...
-Hori neurtziai deitzen zaiyo hola?

-Bai, ta aparatukin ta ibiltzen zian, eta guk’e ordun kalderan lana in ta, han jun ber izaten gendun. Ta ikustea zer den kubierta gaiñin eotia, baña...

17. Tabako kontrabandoko tiroketa

- **Erref**: DEB-036/024
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:44:23. **Bukatu**: 00:45:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Txalupa txikietan kontrabando handia egoten zen eta Angel eta beste batzuek haiek kontrolatzen ibiltzen ziren soldadutza garaian. Tiroketa bat izan zutenekoa kontatzen du. Tabako gorri (rubio) asko egiten zen eta hura eta kanpotik etorritako puruak ibiltzen ziren gehien kontrabandoan.

Transkripzioa
-Eta holako gauzik izan...
-Ez zenuen izan?
-Ez, kontrabandua, e, ibiltzen zan asko Canariasen ikeragarri latxa txikiyakin kontrabandu pasatzen zen, eta, haiyek bigilatzen ibiltzen giñan, ta jo, tiroteo galanta’re bai, gau batin in giñun, lantxa batian jun ta, komandantia, alfedeza, tenientia, eta beste lau marinero, eta alto eman ta, ihesian abittu zianian tiroteua ein ber izan gendun “benga, fuego, fuego!” ta di da ta agure zahar bat jo ta nearrez, jo ta bi tokitan lantxa zulau ziyoen ta beak eskapau, ta han geldittu zien, eta artian kontrabandua etortzeko zeon, hutsian arrapatu giñuzen, dettenittu zittuen, gero deklaraziyuk eta gauzak hartu zittuen, gu, guendik aparte, eta...
-Kontrabandoa zerena izaten zan?
-Ordun han tabakua ibiltzen zan gehiyen bat, tabakua ibiltzen zan. Bertan tabako rubiyua ikeragarri itten zan baiña hala’re hoi trafikatzen zan handikan atea itten zen eta purua ta holakua ekarri itten zan, ta negoziyua hori ba militarra bea bihar de, entenitzen dezu, jende horrek beak bihar du, hori bestek itti ez do ondo.

18. Soldadutzako komeriak

- **Erref**: DEB-036/026
- **Iraupena**: 0:05:24. **Hasi**: 00:46:20. **Bukatu**: 00:51:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
"Pañol-eko kargua eman eta erdaraz ez jakiteagatik gertatu zitzaiona kontatzen du.

19. Itsasoko estutasunak, jatekoa eta jantziak

- **Erref**: DEB-036/028
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 00:52:57. **Bukatu**: 00:56:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Kanarietara bidean, itsasoan pasatako estutasunen berri ematen du. Gose handia pasa zuten; erramu-hostoekin prestatzen zituzten garbantzuak. Irabazten zutenaren erdia baino gehiago arropak garbitzen zituztenei eman behar izaten zieten. Lanean, 3 traje ezberdin izaten zituzten, bakoitzetik bi pare.

Transkripzioa
-Esaten dizu ba mendik altuenea iyo ta handikan hartzen giñuzen puntuak.
-Tokau zitzaizuen sekula galtzeik itsason, galduta ibiltzeik?
-Ez, ez, ez, ez, baiña larri bai e, gaizki bai e, ausiliyuak eta danak eskatuta salba “cada uno su salva vidas” ta “abandono de buque” alkarrei deittuta ta, oso gaizki bai.
-Hori nun pasa zitzaizun?
-Hemendikan, zea nabegatzen hara San Fernando Cadizetikan zeara guazela Canariasetara guazela, itsaso txarrak arrapau, laiño itsua, ezer ikusten ez, bozina bozinan gaiñian ta nun guazen arrastoik gabe. Bai ta, Malspina eo esaten diyen barko haundi bat etorri zitzaigun halako batian sortu zan, eta harrek remolkauta gero eaman zigun.
-A.
-Bestela galduko giñan gu itsasuan.
-Goseik pasau zenuen?
-Gosia, bai latzak, bai latzak eta jateku’re ze jatekuik eoten zan ba… Erramo hostuk eta prepau garbantzuk eta izaten zian ta gutxi gaiña beaiyek.
-Baiña lehorrea aillatzen ziñetenen jateko aukeraik ez zenuen izaten?
-Ez, aukeraik ez, ez, ez, ez. Nik e…
-Hor eukitzen zenuen soldatan bat?
-Bai, soldata guk izaten genun garai hartan e, zazpi duro t’erdi, hilleko soldata, eta labandeiya o bai, erropak garbitzia, labandeira bihardu behar izaten zian, obligatu itten ziun, labandeiyak hartako jarrita zeuzken.
-Erdiya igual kendu?
-Erdiya pasa kentzen ziun.
-Hara, zuen irabazik.
-Eta gure irabaziya. Ta gero e, garai hartako dirua izango zan, hogeta, bai “ciento veiticinco mil pesetas” aillatu nitzan kobratzea, hiru lau bat hillabetian eo. Gero e, destinua ipini ziunakin galoia bezela eman ziun, puntuak eman zizun eitten genun lananak eta orduan ba horreaiño allau giñen gu, hoi kobratzea, baiña hiru lau bat hillabete, orduan diru aurreratu in nun.
-Ze ibiltzen ziñeten marinero jantzita?
-Bai.
-Bai?
-Bai, grisez jantzita lanian, eta neguan, e, azul marinua, eta udan zuriya. Hiru traje izaten giñuzen. Eta bi ta bi danetatik, sei traje, grisak bi, urdiñak bi ta zuriyak beste bi.
-Nolakoa zan zuen barkue?
-E?
-Nolakoa zan zuen barkue?
-Gure barkue zan zuriya “hache dos” esaten ziyoen, barko txuriya. Ez zan gerra barkua, nahiz ta militarrak serbittu, esan dizutena, planeadoria nola zan, sondeatzeko barku hoitakua ba zan beste postura bateko barkua, ez

zan gerrako barkua.
-Laun asko ibiltzen ziñeten barrun?
-Gu ibiltzen giñan e, hamahiru soldau, eta zazpi kabo, eta bi sargento, brigada bat, eta komandantia.
-Osake agintzaillea gehio langillea baiño iya?
-Bai, hoixe.

20. Itsasontzien karga-deskargan

- **Erref**: DEB-036/029
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:56:16. **Bukatu**: 00:58:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:
Soldadutzatik bueltatu eta etxeko lanetan jarraitu zuen. Negu batzuetan barkuak hustutzen laguntzera joaten zen portura. Ikatza hutsutzen zuen ontzietatik gehienetan eta okindegi eta bestelakoetarako izaten zen.

Transkripzioa
-Hola in genun.
-Earki, eta soldaduskatuk bueltatu ziñan honea atzea, eta aurretikan laben ibilita zenden etxetik kanpoa nunbaitten? Ez. Eta geroa ibili ziñan?
-Ezta.
-Ezta?
-Nik ez det etxetik kanpoa, karga deskargan'e ibili giñan hor baiño hoi ez da aittatzeko, karga deskargan ibili giñan gu ba neguan, orduan barkuk etortzen zian, eta ikatza deskargatzeko ta, etortzen zizkun lataka, ondo pagauko ziula ta barkua deskargatzea juteko, eta juten giñan hola barku batzuk deskargatzea, baiño hua ez da aitatzeko, guk jornal fijokoikan, laneko zeaik ez det izan nik bestela.
-Eta ze itten zenuen han? E barkuk aillatzen zian garaien ikatza...?
-Ikatza kalderak bete, ta gero gruakin jaso, eta gamionak kargatzen zian Zumaiyan. Zumaiyan ordun, ikatza ikearri sartzen zan ordun barkutan. Bai, bai. Ni gauak e pasauta no, eguna ta gaua, bate etxeatu gabe etenikan, deskargan, ikatza kargatzen.
-Eta ikatz hua noa biltzen zan gero?
-Orduan hura, panaderitan ta etxietan ta ikearri gastatzen zan ordun ikatza.
-Baiña han e?
-Ordun almazena.
-Nundikan kentzen zenuen?
-Almazenak, bai, almazenak. Ordun bi almazena eo hiru bazeuden Zumaiyen, eta almazenatu itten zan ta gero handik errepartuak itten zittuen. Bai, barkua...
-Ta zeiñekin aitzen ziñen han? Zu, bueno zumaiar betse batzukin eo...
-Bai.
-Eo ezaunen bat bazendun baita?
-Ez, ez, ez auzunekuk juten giñan, hemen Endaitak eta Agerre, ta Santa Klaratik ta juten giñan ba holaxe juten giñan e, neguan tartia gendunin
-Esan leike hori zala e, iñorrek e, o sea kontratuik gabeko lan bat ez?
-Bai, bai, bai, bai, bai, hori zan e, eun erdi bateko eo barkua hustu arteko lan bat, ta hurrungon beste barko bat etortzen giñen ta hura etortzen

bazan alperrik guretikan zeatu ber izaten zan.
-Baiño ordaintzen zizuen lan hoi itteatik?
-Bai, bai, bai, bai, bai, bai, ordurako dexente, ta gero zaku bat ikatz ematen ziun etxeako, eta gero jornala ematen ziun.

21. Olagarro harrapaketa

- **Erref**: DEB-036/030
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:58:10. **Bukatu**: 01:00:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Olagarroa
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:
Olagarrotan ibili eta arrantza gustatu arren sekula ez zuen txaluparik izan. Olagarroak nola harrapatzen diren azaltzen du. Zumaiako txalupa eta itsasontzien aipamena egiten du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-25

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com